| 2024-2025<br>IKASTURTEA | KIDEGORA SARTZEKO AUKERATZE PROZEDURA<br>○ Maisu-maistrak<br>○ Bigarren Hezkuntzako irakasleak<br>○ Arte plastikoak eta diseinua<br>○ Musika eta Arte Eszenikoetako irakasleak<br>○ | IRAKASKUNTZA PRAKTIKAK BALORATZEKO TXOSTENA |
|---|---|---|

# ZUZENDARIAREN TXOSTENA

**PRAKTIKETAKO FUNTZIONARIOAREN IZEN-DEITURAK**

**PRAKTIKETAKO ALDIA, HILABETETAN**

**IKASTETXEA**

**ESPEZIALITATEA**

**HERRIA**

**LURRALDEA**

## *ADIERAZLEAK ETA MAILAK*

| **1.- IKASTETXEAK BEHAR BEZALA FUNTZIONATZEKO ZUZENDARITZA TALDEAREKIN LANKIDETZAN ARITZEA** | |
|---|---|
| ○ **GAI** | ○ **EZ GAI** |
| **1.1.-** Zuzendaritza-taldearekin lankidetzan, ikastetxeak eta hezkuntza-jarduerek behar bezala funtzionatzeko hark sustatutako ekimenen garapena ahalbideratzen du. Zuzendaritza-taldeari laguntza eskaintzen dio. | **1.2.-** Lankidetza eskasa erakusten du ikastetxeko zuzendaritza-taldearekin, ikastetxeak eta hezkuntza-jarduerek behar bezala funtzionatzeko. |
| **OHARRAK** | |



Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tel. 945 01 83 06 - Fax 945 01 83 36 - E-mail: huisicen@euskadi.eus

## 2.- HEZKUNTZA-JARDUERAK DISEINATU ETA GAUZATZEKO PROZESUAN LAGUNTZA

| ◯ **GAI** | ◯ **EZ GAI** |
|---|---|
| **2.1.-** Kide den koordinazio pedagogikorako organoen barruan, laguntza ematen du ikastetxeko hezkuntza-jarduerak diseinatu eta martxan jartzeko prozesuan. | **2.2-** Ez da behar bezala inplikatzen ikastetxearen hezkuntza-jarduerak diseinatu eta aurrera eramateko prozesuan. Laguntza emateko proposamen edo eskaerak egiten zaizkionean, uzkur agertzen da edo aitzakiak jartzen ditu. |

**OHARRAK**

## 3.- PARTE HARTZEA ETA AKORDIOAK BETETZEA

| ◯ **GAI** | ◯ **EZ GAI** |
|---|---|
| **3.1.-** Partaide den kide anitzeko organoen (OOG, klaustroa, batzorde pedagogikoa, departamentua, talde-gelako ekipoa, …) bileretan parte hartzen du, akordioetara iristeko laguntzen du eta organo horien ebazpen eta argibideak, ikasleen ikaskuntza ebaluatu eta kalifikatzeari buruzkoak besteak beste, betetzen ditu. | **3.2.-** Partaide den kide anitzeko organoen bileretatik alde egitearen edo bilera horietan parte ez hartzearen aldeko joera du. Ez ditu organo horien akordio eta argibideak errespetatzen eta, sarritan, eragozpenak jartzen ditu horiek betetzeko orduan. Ez die, ikasleen ikasteko prozesua ebaluatu eta kalifikatzea dela-eta, hartutako akordioei kasurik egiten. |

**OHARRAK**

## 4.- INTEGRAZIOA KLAUSTROAN

| ◯ **GAI** | ◯ **EZ GAI** |
|---|---|
| **4.1.-** Klaustroan parte hartzen du. Eskola-erkidegoko kide desberdinen arteko koordinazioan eta elkar ulertze onean inplikatzen da eta lan egiteko, elkarbizitzarako eta laguntzeko giroa sortzen saiatzen da. | **4.2.-** Zailtasunak izaten ditu klaustroaren ohiko dinamikan behar bezala integratzeko orduan. Ez da, lan eta elkarbizitzarako giro egokia izan dadin, eskola-erkidegoko kide desberdinen arteko koordinazioan eta lankidetzan inplikatzen. |

**OHARRAK**


Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tel. 945 01 83 06 - Fax 945 01 83 36 - E-mail: huisicen@euskadi.eus

## 5.- IKASTETXEAREN HEZKUNTZA JARDUERETAN PARTE HARTZEA

| ○ **GAI** | ○ **EZ GAI** |
|---|---|
| **5.1.-** Era aktiboan hartzen du parte ikastetxearen ohiko lanaldian, gelan eta gelatik at, egiten diren eskola-jardueretan. | **5.2.-** Oztopoak jartzen ditu gelan klaseak emateari hertsiki lotuta, haren ustez, ez dagoen guztia egiteko orduan. |

| ○ **GAI** | ○ **EZ GAI** |
|---|---|
| **5.3.-** Eskolaz kanpoko jarduera osagarrietan, OOGn onartuak eta Ikastetxearen Urteko Planean jasota agertzen direnak, laguntza eman edota parte hartzen du. | **5.4.-** Uzkur agertzen da eta eragozpenak jartzen ditu eskolaz kanpoko jarduera osagarrietan, OOGn programatuak eta onartuak eta Ikastetxearen Urteko Planean jasota agertzen direnak, parte hartzeko orduan. |

**OHARRAK**

## 6.- TALDE LANA

| ○ **GAI** | ○ **EZ GAI** |
|---|---|
| **6.1.-** Bileretan eta lan-taldeetan (talde-gelako ekipoa, zikloa edo departamentua, batzordeak, … ) era aktiboan hartzen du parte. Talde-lanarekiko haren jarrerak talde-dinamikak laguntzen ditu, laguntza ematen du, irtenbideak edota erantzunak proposatzen ditu landutako gaiak konpontzeko orduan eta akordioetara iristeko gai da.<br>Jarrera positiboa eta praktika onak partekatzeari irekia erakusten du. Hobetzeko proposamenak egiten ditu, lankideen lana errespetatuz eta baloratuz. | **6.2.-** Jarrera pasiboa, edo negatiboa, erakusten du lan-taldeen (talde-gelako ekipoa, zikloa edo departamentua, batzordeak, … ) bileretan eta, batzuetan, talde horietan hartutako akordioen kontra agertzen da. Indibidualismo maila handia agertzen du eta jarrera horrek zailtasunak sortzen ditu, batera koordinatu eta planifikatzeko lanak gauzatzeko orduan.<br>Praktika onak, esperientziak edo baliabide eraginkorrak trukatzearen edo partekatzearen kontrako jarrera. Ez die lankideen proposamenei begirunerik edo haien praktikak gutxiesten ditu. |

**OHARRAK**


Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tel. 945 01 83 06 - Fax 945 01 83 36 - E-mail: huisicen@euskadi.eus

## 7.- ELKARBIZITZA POSITIBOARI ETA IKASTEKO GIRO ONA SORTZEARI LAGUNTZEA

| ○ **GAI** | ○ **EZ GAI** |
|---|---|
| **7.1.-** Estrategiak aurrera eramaten ditu, elkarbizitza positiboa sustatu eta gelan eta gelatik at behar bezala ikasteko giroa sortzeko orduan. Aurre egiten die elkarbizitza-arazoei eta elkarbizitza hori sustatzeko jarduera edo programetan inplikatzen da. | **7.2.-** Zailtasunak ditu elkarbizitza positiboari laguntzeko eta gatazkak behar bezala kudeatzeko estrategiak aurrera eramateko orduan. Ez da eskola-giroa hobetzera bideratutako jarduera eta programetan inplikatzen. |

**OHARRAK**

## 8.- IKASLEEKIN ETA FAMILIEKIN HARREMANAK IZAN ETA KOMUNIKATZEKO GAITASUNA

| ○ **GAI** | ○ **EZ GAI** |
|---|---|
| **8.1.-** Harreman arina du ikasleekin, haien entzun eta laguntzearen aldeko jarrera agertzen du eta haien ezaugarri eta premiak kontuan hartzen ditu, alderdi akademikoei eta prestakuntza-alderdiei begira. Dagozkion tutoretza- eta orientabide-funtzioak betetzen ditu ikasleekin. | **8.2.-** Zailtasunak ditu ikasleekin harremanak izateko orduan. Ez ditu ikaslearen ezaugarri eta premiak kontuan hartzen, ezta haren erabateko garapena ere. Ikasleekin egiten dituen esku-hartzeak alderdi akademikoetan bakarrik zentratzen dira. Ez ditu dagozkion tutoretza- eta orientabide-funtzioak betetzen. |

| ○ **GAI** | ○ **EZ GAI** |
|---|---|
| **8.3.-** Komunikazio arina du familiekin eta haiekiko koordinazioa errazten du ikasleak hezteko prozesuan. | **8.4.-** Familiekiko harremanak eta komunikazioak ez dute ikasleak hezteko prozesuan izan beharreko koordinazioa laguntzen. |

**OHARRAK**


Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tel. 945 01 83 06 - Fax 945 01 83 36 - E-mail: huisicen@euskadi.eus

## 9.- HAREN FUNTZIO, EGINKIZUN ETA EGINBEHARRAK BETETZEA

| ○ **GAI** | ○ **EZ GAI** |
|---|---|
| **9.1.-** Haren lan-ordutegia betetzen du. Izan ditzakeen hutsegiteak aurreikusi eta behar bezala antolatzen ditu (aldez aurretik ematen du abisua, materiala prestatzen du zaintza-irakasleentzat, … ).<br>Behar izanez gero, prestutasuna erakusten du haren ordutegia malgutu edo aldatzea eskatzen duten aparteko egoerei arreta emateko orduan (premiazko gaiak, bisitak egin ahal izateko familien ordutegira egokitzea, … ). | **9.2.-** Ez du haren lan-ordutegia behar bezala betetzen. Klasera huts egiten du edo egiaztatutako justifikaziorik gabe berandu iristen da. Batzuetan ez da koordinazio didaktikorako, ebaluaziorako, klaustroetarako, ikastetxean egin beharreko prestakuntza-saioetarako, zaintzetarako, … deitutako bileratara joaten edo bilera horietatik alde egiten du.<br>Aparteko egoeretan (premiazko gaiak, bisitak egin ahal izateko familien ordutegira egokitzea, … ) ez du prestutasunik erakusten ordutegia malgutzeko orduan. |

| ○ **GAI** | ○ **EZ GAI** |
|---|---|
| **9.3.-** Agindutako karguan aritzeko ezarritako funtzioak ezagutu eta behar bezala betetzen ditu. | **9.4.-** Ez du agindu zaion karguaren funtzioetan interesik. Ez ditu bere funtzioak behar bezala betetzen. |

| ○ **GAI** | ○ **EZ GAI** |
|---|---|
| **9.5.-** Planifikazio-agirietan ezarritakoaren eta koordinazio didaktikoko organoek hartutako erabakien arabera aldez aurretik eta era sistematikoan programatzen du irakaskuntza-jarduera,talde-gelaren errealitate konkretura egokitzen du eta izan daitezkeen desorekak, sortzen diren heinean, zuzentzen ditu.<br>Ordutegia eta araudian eta ikastetxearen planifikazioan ematen dituen curriculum-arloetarako ezarritako helburuak betetzen ditu.<br>Ikasketa-burutzari epean ematen dio programazioa. | **9.6.-** Ez du irakaskuntza-jarduera programatzen edo planifikazio-agirietan eta koordinazio didaktikoko organo desberdinen erabakietan ezarritakoari kasurik egin gabe egiten du programazioa. Zailtasunak ditu programazioa talde-gelaren errealitate konkretura egokitzeko orduan, baita izan daitezkeen desorekak zuzentzeko orduan ere.<br>Ez du araudian eta ikastetxearen planifikazioan, curriculum-arloei begira, ezarritako ordutegia betetzen.<br>Planifikazioa eta programazioa ez izateagatik, desorekak ditu programatutakoa eman behar den denbora antolatzeko orduan.<br>Ez dio programazioa epean ematen ikasketa-burutzari. |

**OHARRAK**


Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tel. 945 01 83 06 - Fax 945 01 83 36 - E-mail: huisicen@euskadi.eus

## *BALORAZIOAREN OINARRI DIREN ELEMENTU ETA DOKUMENTAZIOA*

| | |
|---|---|
| IKASTETXEAREN HEZKUNTZA PROIEKTUA | ☐ |
| IKASTETXEAREN KURRIKULUM PROIEKTUA | ☐ |
| BIZIKIDETZA PLANA | ☐ |
| IKASTETXEAREN URTEKO PLANA | ☐ |
| ARLO, MAILA, ESPEZIALITA- TEKO PROGRAMAZIOAK | ☐ |
| AJA | ☐ |
| EED | ☐ |
| TUTORETZA PLANA | ☐ |
| KLAUSTROEN AKTAK | ☐ |
| HUTSEGITEEN PARTEA ETA KONTROLA | ☐ |
| KOORDINAZIO, IRAKASLE-TALDEA, MAILA, MINTEGIA EDOTA BESTELAKO BATZARRAK | ☐ |
| EBALUAZIO SAIOEN AKTAK | ☐ |
| IRAKASLEAREN EGUNEROKO JARDUEREN BEHAKETA | ☐ |
| KLAUSTRO NAHIZ ORGANO KOLEGIATUETAN PARTE HARTZEA | ☐ |
| IKASTETXEKO NAHIZ KANPOKO PRESTAKUNTZA JARDUERETAN PARTE-HARTZEA | ☐ |
| IKASLEEN TUTORETZA EDOTA ORIENTABIDETZARAKO BILERETAN PARTZE-HARTZEA | ☐ |
| IKASLEEKIKO TUTORETXA SAIOAK | ☐ |
| BILERAK FAMILIEKIN | ☐ |
| BESTE BATZUK (Zehaztu) | |

______ **-(e)n,** ______ **-(e)ko** ______ **-ren** ______ **-(e)an**

**Zuzendaria**

**Izpta.:** ______

(Sinadura eta zigilua)



Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tel. 945 01 83 06 - Fax 945 01 83 36 - E-mail: huisicen@euskadi.eus